



HEZKUNTZA SAILAREN AKORDIO-PROPOSAMENA

IKASTOLETAKO ERAKUNDE PATRONALEI ETA ERAKUNDE SINDIKALEI

AURREIKUSTEN DEN JAITSIERA DEMOGRAFIKOAREN AURREAN, ENPLEGUA

MANTENDU ETA IRAKASLE-PLANTILAK ZAHARBERRITZE ALDERA

Euskal Hezkuntza Sistema, bere helburuak betetze aldera, erronka berri eta tamainakoei erantzun beharrean da gaur egun. Horiek gutxi balira, hurrengo urteetarako aurreikuspen demografikoak eutsi beharreko beste faktore eta baldintza batzuk jartzen ditu jokoan. Izan ere, gure gaurko eta etorkizun hurbileko jaiotze tasa baxuek eragin zuzena izango dute ikastetxeetan. Ikasturte honetako bi urteko geletako matrikulazio-datuek begibistan jarri digute ikasle-kopuruaren jaitsiera, eta epealdi baterako jaitsiera nabarmenak iragartzen dizkigute.

Horren aurrean, politika egokiekin asmatzeaz batera, hezkuntza-sistemak bere aldetik egokitu beharra izango du, helburuei eutsiz, egoera berrietara moldatzeko.

Eusko Jaurlaritzak gobernu-programan lehenetsi egiten ditu enplegu- eta hezkuntza-arloko hainbat ekimen estrategiko.

Horien artean, enplegu- eta gizarte erantzukizuneko politikak sustatzen dira: kalitateko enplegua sortzeko, enpleguak mantentzeko eta gazteen enplegua sustatzeko, bai eremu publikoan (LEP, egonkortasuna, lan-baldintzak...) zein pribatuan.

Bestalde, 1997an, Administrazioaren eta Euskadiko irakaskuntza pribatuko erakunde patronal batzuen eta erakunde sindikalen artean Akordioa sinatu zen, itundutako gela-kopuruaren jaitsieragatik lanpostua galtzen zuten irakasleak birkokatzeko. Akordio hark, gainera, lanpostuen galeragatik kalte-ordainen finantziazioa ere barne hartzen zuen. Gaur egun, praktikan, gainditua geratu da akordio hura. Proposatzen den akordio berri honek, oro har, bertan behera uzten du kalte-ordainen finantzaketa eta, finantzaketa funtsean, birkokatzea aukeratzen duen pertsonalaren enplegua mantentzera eta irakasle-plantilen gazteagotzea erraztera bideratzen du.

Geroago, 2016/17 eta 2021/22 ikasturteen bitarteko ikasturteetarako hezkuntza-itunak berritzeko eta berriak izenpetzeko Aginduak pausu berritzaile bat eman zuen lanpostuen galerari aurre egiteko asmoarekin: ikasle-kopuruaren jaitsieraren aurrean talde-kopuruaren murritzeta graduala izango zela arautu zuen.

Hemen adierazitako printzipioekin bat, eta egindako ibilbidearen eskarmentuaz, proposamen hau aurkezten die Hezkuntza Sailak Ikasteleketako erakunde patronalei eta erakunde sindikalei.

AKORDIOAREN ARDATZ NAGUSIAK

Akordioaren bi ardatz nagusiak ondoko hauek dira:

- Irakasleen enplegua mantentzea: gela-kopuruaren jaitzieragatik lanposturik gabe geratzen diren irakasleen birkokatzea bermatu.
- Irakasleen belaunaldi-erreleboa erraztea, irakasle nagusienei erretiroa eta gaztenei sarbidea erraztuz: erretiro partziala eta errelebo-kontratua, Administrazioaren laguntzarekin.

Prozesua gardentasun osoz garatze aldera, lankidetzarako esparruak sortu beharko dira; hala, inplikatura dauden alde guztien partaidetza aktiboa ahalbidetuko da, hau da, ikastetxeena, erakunde patronalena, langileen ordezkariena eta Administrazioarena.

2

AKORDIOAREN ILDO NAGUSIAK

Akordia ikastolei zuzendua dago, eta zehazki, kontratu finkoa duen Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako pertsonal irakasleari.

Aipatu bi ardatzak garatzeko helburuarekin, eskura ditugun mekanismoak baliatu behar ditugu: batetik, irakasleen birkokatze sistema bat; bestetik, errelebo-kontratua baliatu erretiro partzialarekin batera, irakasle-plantilak gazteagotzen lagunduko duena.

Birkokatzea

Akordio honetan aurreikusten diren birkokatzeak Ikastolen Lan Hitzarmena sinatu duen Patronal bakoitzaren eremuan gauzatu beharko dira.

Ikastolek gela-kopuruaren jaitzieragatik eszedente diren eta birkokatu beharra duten irakasleen zerrenda prestatuko dute.

Izenpetzen diren kontratu berriak mugagabeak izango dira eta hamabi hilabeteko proba-aldia izango dute.

Bestalde, Administrazioak birkokatzen den langileak duen antzintasunaren kostua bere gain hartzeko proposamena egiten du

Plantila zaharberritzea

Akordio honek, halaber, erretiro partziala sustatu nahi du, bai birkokatze sistema gisa bai eta plantilak gazteagotzeko ere. Sistema honek ahalbideratuko du langilearen aukera erretiro partziala hartze.

Xede horretarako, Administrazioak laguntzak eskainiko ditu errelebo-kontratuen gizarte-kotizazioen gailak finantzatzeko aldera, Ikastolako Batzordeak bideratutako eskariak aztertu eta ezarritako arauzko prozedurari eutsiz. Akordio honetan aurreikusitako zenbatekoak ez dira Administrazioak araututako erretiroen gailuaren gainetik egongo.

Neurri hauen bitartez, itunpeko sareko gela-kopuruaren jaitzieragatik lanpostua galdu duten irakasleen enplegua bermatu nahi da, eta aldi berean, plantilak gazteagotzea, dena ere gure hezkuntza-sistemaren hobekuntzaren mesedetan.

AKORDIOAREN SEGIMENDU BATZORDEAK

Segimendu Batzorde bat eratuko da patronalka, Akordioaren sinatzaile guztiek osatua.

Segimendu Batzordeak Akordioaren aplikazioaren segimendua egin eta sor litezkeen zalantzak argitzeko eginkizuna izango du. Batzordearen baitan, hartutako neurrien balorazioa egingo da, eta hala badagokio, balizko egokitzapenak planteatuko dira.

Segimendu Batzordeak arreta bereziz jarraituko du erabakiak gardentasunez eta Akordioan adostu diren irizpideei eutsiz hartu diren.

Batzordea urtean behin batzartuko da gutxienez, bai eta aldeetako edozeinek eskatzen duenean ere.

AKORDIOAREN ERAGINKORTASUNA ETA EZ BETETZEA

Gela itunduen jaitsieraren ondorioz lanpostua galtzen duten irakasleak zehazteko, besteak beste, ondoko irizpideak ezartzen dira:

- Lehenik, ikastetxean baja bere borondatez eskatzen duen irakaslea
- Bigarrenik, ikastetxean antzinasun gutxiago duen irakaslea

Ohiz kanpoko kasuetan, aintzat hartuko dira irizpide pedagogikoak, eta adostu egingo dira Birkokatzeako Batzordean.

Horren harira, ikastolek irakasleen birkokatzea errazteko konpromisoa hartzen dute, irakasleei jarraitutasuna eskainiz kontratazio-beharrak dauden ikastetxeetan. Horretarako, urtero, aurreikusten diren beharren zerrenda prestatuko dute ikastolek.

Irakasleen birkokatzea bideratzerakoan, titulazio-, profil- eta espezialitate-betekizunez gain, besteak beste, ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

- Antzinasuna birkopen-zerrendan
- Antzinasuna patronalean

Lanpostu beharra kontsideratuko da ondoko arrazoren bat dela medio sortzen den edozein irakasle-behar, gutxienez ikasturte baterako aurreikusten bada:

- Gela itunduen igoera
- Erretiroak
- Borondatezko bajak
- Ezintasunak eta heriotzak
- Eszedentziak, lanpostuaren erreserba galdu denean

Birkokatze prozesu honen funtzionamendua eta gardentasuna bi batzordek bermatuko dituzte: Ikastolako Batzordeak eta Birkokatzeako Batzordeak.

- Ikastolako Batzordea: ikastetxeko zuzendaritzak, ikastetxearen titularrak eta langileen ordezkariak osatuko dute, eta urtero, hurrengo ikasturterako kontratazio-beharrak, birkokatu beharreko irakasleak eta aurreikusten diren erretiro partzialak zerrendatuko ditu.
- Birkokatzeako Batzordea: erakunde patronaletako eta akordioa sinatu duten erakunde sindikaletako pareko kide-kopurua izango du, eta lanpostu beharrak esleitzeko ardura izango du, batzorde honen gehiengoak adostutako prozedura jarraituz. Hezkuntza Sailak ohiz kanpoko kasuetan eta berariaz eskatzen zaionean hartuko du parte Batzorde honetan.

Batzorde biek adostasunez hartuko dituzte erabakiak, irizpide objektiboak aplikatuz eta berdintasun, meritua eta gaitasun printzipioei eutsiz.

Ikastetxeren batek hitzartutakoa ez betetzearen ondorio izango dira ikastetxe hori Akordiotik at geratzea eta jasotako laguntzak itzultzeko eskaera. Horiekin batera, eta Segimendu Batzordearen proposamena aztertuta, ikastetxe horren erakunde patronala bera ere Akordiotik kanpo gera liteke.

Neurri hauek eraginkorrak izango dira 2021eko abuztuaren 31 arte, eta luzatu egin ahal izango dira, beti ere Akordio hau ahalbidetu duten baldintzek irauten badute eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.


Akordio hau, edozein kasutan, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean Akordioaren beraren aplikazioari dagozkion dirulaguntzen onarpenaren baldintzapean egongo da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 7an

ADMINISTRAZIOAREN ALDETIK:


CRISTINA URIARTE TOLEDO

Hezkuntza Saileko Sailburua:



5

ERAKUNDE PATRONALEN ALDETIK:

Patronala: PARTAIDE	Patronala: EUSKO ILASTOLA BAPPA - EIB
Ordezkarria: JOSE LUIS SUKIA	Ordezkarria: IRATIA IZURZAGOITIA VALLE
NAN: 15937475-Q	NAN: 16.058.033 P
Sinadura: 	Sinadura: 

SINDIKATUEN ALDETIK:

Sindikaturia: LAB	Sindikaturia:
Ordezkarria: IKER FRADE BILBAO	Ordezkarria:
NAN: 78897480-M	NAN:
Sinadura: 	Sinadura:

